

Indarkeria sexistak prebenitzeko eta haien aurka jarduteko lehen protokoloa



HERRITARREN BERTSIOA

2026

Indarkeria sexistak prebenitzeko eta haien aurka jarduteko lehen protokoloa



1. Sarrera	4
2. Arau esparrua	5
2.1. Nazioarteko araudia	5
2.2. Estatuko araudia	6
2.3. Autonomia erkidegoko eta tokiko araudia	7
3. Irismena	8
3.1. Lurraldebusen garraio zerbitzu publikoa erabiltzen duten emakumeak	8
3.2. Lurraldebuseko emakume langileak	8
3.3. Lurraldebuseko gainerako erabiltzaileak eta langileak	8
4. Printzipio gidariak	9
5. Helburuak	10
5.1. Helburu orokorra	10
5.2. Helburu espezifikoak	10
6. Diagnostikoaren emaitza nagusiak	11
7. Indarkeria sexistak definitzen	12
7.1. Indarkeria sexisten adierazpenak	13
8. Jarduteko prozedura	14
8.1. Gidarien eginkizunak	15
9. Autobusen ekipamendua	16
10. Prebentzioa eta sentsibilizazioa	17
10.1. Langileentzako trebakuntza	17
10.2. Sentsibilizazio kanpainak	18
11. Indarkeria sexistaren biktimentzako baliabideak	19

Lurraldebuseko indarkeria sexisten prebentzio eta jarduera protokoloaren lehenengo helburua garraio publikoan ingurune seguru eta indarkeria sexistarik gabekoa bermatzea da. Izan ere, gure erronka garraio publikoa demokratizatzea bada, pertsona guztientzat irisgarria izan dadin, segurua ere izan dadila bermatu behar dugu, eta horretarako gizarte osoaren inplikazioa behar dugu.

Garraio publikoa ez da mugikortasunerako baliabide hutsa; milaka pertsonaren eguneroko bizikidetzak gunea ere bada, gehienbat emakumeena. Egindako diagnostikoaren arabera, Lurraldebuseko erabiltzaileen %65,22 emakumeak dira. Hala ere, gure esperientzia oso desberdina da gizonek bizi dutenarekin alderatuta. Gaur egun ere, emakume askorentzat garraio publikoan mugitzeak erne egotea, kalkulatzeko, saihestea, pentsatzea... dakar. Azken batean, alarma sortzen du. Eta emakume batek beldurragatik autobusa hartzeari uzten dionean, bere eskubideak urratzen ari dira. Horregatik, premiazkoak dira biztanleriaren erdiaren segurtasuna eta ongizatea lehenetsiko dituzten neurri zehatzak.

Baina protokolo hau ez da haienetzat bakarrik: egunero zerbitzua sostengatzen duten langileei ere zuzenduta dago. Izan ere, beren lana profesionaltasun handiz egiten duten arren, askotan iruzkin matxistak, zalantzan jartzeak edo errespetu faltak jasari behar izan dituzte emakume izate hutsagatik. Dokumentu honen bidez, babestu, sostengatu eta haien ezinbesteko papera aitortu nahi dugu.

Protokoloaren ardatz nagusia edozein eraso sexista mota prebenitzea da, izan fisikoa, hitzekoa, keinu bidezkoa edo sinbolikoa, pertsona guztiak konfiantzaz eta lasaitasunez mugitu ahal izango diren ingurunea sustatuz, eta batez ere, une oro segurtasun

pertzepzioa izan dezaten bermatuz. Horretarako, prebentzio neurriak ezartzen ditugu. Gainera, langileen prestakuntza indartzen dugu, Lurraldebuseko langile guztiek berdintasunari, indarkeria sexistaren prebentzioari eta gorabeheren kudeaketari buruzko formakuntza jaso dezaten bermatuz. Eta ekintza horiek erabiltzaileei zuzendutako sentsibilizazio kanpainekin osatzen ditugu, jokabide sexistak desnormalizatzeko eta bizikidetzak errespetuzkoa eta solidarioa sustatzeko diseinatuak.

Prebenitu nahi dugu, bai, baina baita ikusgarri egin eta indarkeria sexistaren egoeren aurrean salatzeko eta jarduteko mekanismo seguru eta konfidentzialesak sarbidea erraztu ere. Protokoloak arreta integral bat ordezkatzeko ez badu ere, erantzun egokia eta neurri zehatzak bermatzen ditu: biktimarengana hurbiltzea, zer behar duen galdetzea, laguntza eskaintzea edo epaitu gabe laguntzea keinu sinpleak dira, baina balio handikoak; beldurra, lotsa edo bakardadea alde batera uzten lagun dezaketeko keinuak dira.

Horregatik, dokumentuan zehar, besteak beste, autobus bidezko garraio publikoaren ingurunean gerta daitezkeen indarkeria adierazpen desberdinak lantzen dira, eta azaltzen da, alde batetik, indarkeriaren biktima emakume erabiltzaile bat den egoeretan jarduteko prozedura, eta bestetik, eraso langile batek jasaten duenean —gidariak nahiz txarteletako langileek— jarraitu beharreko urratsak.

Protokolo hau lehen urratsa da: urrats garrantzitsua, beharrezkoa, bidearen hasiera. Baina benetako erronka orain hasten da: autobus bakoitzean, beste alde batera begiratzea erabakitzen ez duen pertsona bakoitzean. Eraiki dezagun denon artean pertsona guztientzako espazio publiko seguruak, non matxismoak tokirik izango ez duen.

Azahara Domínguez Urtizberea

Gipuzkoako Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko, Turismoko eta
Lurralde Antolaketako Departamentua



Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad, Turismo
y Ordenación del Territorio



1. Sarrera

Lurraldebusen protokolo hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak egina da. Indarkeria sexistak prebenitzeko eta haien aurka jarduteko Lurraldebuserako definituriko lehenbiziko protokoloa da, eta helburu gisa zehazten du indarkeria sexistarik gabeko ingurune seguruak bermatzea garraio publikoan. Konpromiso horrek diagnostikoan identifikatutako kezka eta beharrei erantzuten die, eta bat dator Lurraldebusen erantzukizunarekin: errespetua eta berdintasuna sustatzea eskaintzen duen funtsezko zerbitzu publikoan. Hori horrela, jokabide horiek desagerrarazteaz aparte, justizia soziala eta giza eskubideen defentsa islatuko dituen espazio bihurtu nahi da garraio publikoa.

Dokumentuan, besteak beste, autobus garraio publikoan gerta daitezkeen indarkeria adierazpenak jorratzen dira. Horrekin loturik azaltzen da, alde batetik, zer-nola jardun behar den emakume erabiltzaile bat indarkeriaren biktima den egoeretan, eta, bestetik, zer urrats egin behar diren eraso enpresako emakumezko langile batek jasanez gero —izan gidariak, izan leihatiletako langileak—.

Garraio publikoa ez da mugikortasuna bermatzen duen bitarteko bat bakarrik; aitzitik, gizarte bizikidetzako dinamika ere agertzen dira garraio publikoan, barnean harturik askotariko genero desberdintasunak eta botere harremanak. Egindako diagnostikoaren arabera, Lurraldebusen erabiltzaileen % 65,22 emakumeak dira. Errealitate hori are larriagoa bihurtzen da segurtasunik ezaren pertzepzioagatik, batez ere gaueko ordutegietan edo geltoki isolatuetan, eta agerikoa da premiazkoa dela neurri zehatzak ezartzea talde horren segurtasuna eta ongizatea lehenesteko —kontuan izanik gizartean gehiago direla emakumeak—.

Protokoloaren ardatz nagusia da edozein eraso sexista prebenitzea (fisikoa, hitzekoa, keinuen bidezkoa edo sinbolikoa). Hala, pertsona guztiak konfiantzaz eta lasaitasunez mugitu ahal izateko ingurune bat sustatu nahi da, eta, batez ere, une oro segurtasun sententzia bermatzen duen espazio bat. Horretarako ezartzen dira prebentzio neurriak. Gainera, langileen gaikuntza indartu nahi da, eta, ildo horretan, bermatu nahi da Lurraldebusen lan egiten dutenek jasotzen dutela berdintasunari, indarkeria sexista prebenitzeari eta gorabeherak kudeatzeari buruzko prestakuntza. Ekintza horien osagarri dira erabiltzaileei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak, jokabide sexistak desnormalizatzea eta errespetuzko eta elkartzunezko bizikidetzak sustatzera bideratuak.

Prebentzioaz haratago, protokoloak indarkeria sexistako egoerak salatze eta halakoei aurre egiteko mekanismo seguruak eta konfidentzialak ikusarazi eta erraztu nahi ditu. Protokoloak arreta integrala ordeztzen ez badu ere, bermatzen ditu erantzun egokiak eta neurri zehatzak indarkeria sexistaren biktimak babesteko eta laguntzeko. Ikuspegi honen xedea da berehalako laguntza, kontentzioa eta orientazioa bermatzea beharra den kasuetan, eta, ahal den neurrian, arreta emozionala, legala eta soziala eman dezaketen zerbitzu espezializatuekin artikulatzen da.

Lurraldebusen indarkerien aurkako prebentzio eta jardura protokoloaren garrantziak gure gizartean sakon errotuta dagoen arazo sistemiko bati aurreko egiteko duen gaitasuna du ardatz: kasu honetan, garraio publikoaren testuinguruan agertzen den indarkeria sexistari aurre egitea, hain zuzen ere. Arazo horrek agerian uzten ditu gizartearen desberdintasun estrukturalak, emakumei neurri kanpo eragiten dietenak. Protokolo hau bereziki bideratua da erabiltzaile guztientzako berdintasuna, segurtasuna, inklusioa eta errespetua bermatuko dituen garraio publiko bat sustatzera.



2. Arau esparrua

2.1. Nazioarteko araudia

Emakumeen aurkako bereizkeria oro desagerrarazteari buruzko Hitzarmena (CEDAW).

Nazioarteko jarraibide horrek ezartzen du estatuek neurri zehatzak hartu behar dituztela emakumeen aurkako diskriminazioa eremu guztietatik desagerrarazteko, baita espazio publikotik eta garraio zerbitzuetatik ere. Hitzarmen horren 2. artikulua estatuei eskatzen die ezar ditzatela diskriminazio mota oro debekatzen duten legeak eta berma dezatela emakumeen babesa bizitza publikoan. Gainera, 5. artikulua zehazten du beharrezkoa dela eredu soziokulturalak aldatzea aurreiritziak eta praktika diskriminatzaileak desagerrarazteko, barnean harturik garraio publikoan emakumeen segurtasunari eragiten diotenak. Konpromiso horrek berekin dakar prebentzio neurriak hartzea, hala nola espazio publiko seguruak diseinatzea eta langileak genero berdintasunean trebatzea.

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda - Garapen Jasangarrirako 5. Helburua (GJH)

Garapen Jasangarrirako 5. Helburuaren xedea da genero berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea. Helburu horren barneko 5.1 eta 5.2 jomugetan, emakumeen aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztiak ezabatzea jasotzen da, baita eremu publikoetan ere, hala nola garraioan. Era berean, 5.c jomugak genero berdintasunerako politika eta legedi eraginkorrak ezartzea sustatzen du, eta horrek berekin dakar garraio zerbitzuetan inklusioa eta segurtasuna lehenesten dituen plangintza izatea.





2.2. Estatuko araudia

10/2022 Lege Organikoa, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa

Lege horrek oinarritzko eskubide gisa indartzen du sexu askatasunerako eskubidea, eta arreta berezia jartzen die sexu indarkeria mota guztiei, baita espazio publikoetako jazarpenari ere, hala nola garraioan gertatzen denari. Lege horren artikuluetan, sexu indarkeriari aurre egiteko prebentzio, sentsibilizazio eta jarduera neurriak ezartzen dira, eta pertsona guztientzako indarkeriarik gabeko ingurune seguruak sustatzen. Era berean, aurreikusten da inplikaturako langileei prestakuntza espezifiko ematea eta sexu indarkeria edo jazarpen egoeretan esku hartzeko protokolo egokiak hartzea.

1/2004 Lege Organikoa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa

Lege horrek esparru integral bat ezartzen du genero indarkeria prebenitzeko, zehatzeko eta desgerrarazteko. 1. artikuluan, diskriminazioaren eta desberdintasunaren adierazpen gisa definitzen du genero indarkeria, eta aitortzen du eremu publiko zein pribatuatan ageri dela. Gainera, 19. artikulua biktimak babesteko eta arreta integrala emateko neurriak ezartzen ditu, zeinak garraio publikoari ere aplikatzen baitzaizkio, jazarpenari aurre egiteko berariazko protokoloen bidez. 29. artikulua, bestalde, gizartea arazo horien inguruan sentsibilizatzeko beharra ezartzen du, eta garraio operadoreak eta erabiltzaileak ere inplikatzeko eginahal horretan.

3/2007 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa

Lege horrek indartu egiten du berdintasuna sektore guztietan bermatzeko beharra. 14. artikulua tratatu eta aukera berdintasunaren printzipioa ezartzen du ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean, eta benetako berdintasuna sustatuko duten baldintzak ziurtatzea eskatzen du. 27. artikulua, bestalde, politikan genero ikuspegia txertatzera behartzen ditu administrazio publikoak, barnean harturik betiere oztopo estrukturalak ezabatuko dituen eta emakumeen eta gizonen erabilera seguru eta irisgarria bermatuko duen garraio plangintza. Azpimarratzen du, berebat, beharrezkoa dela inplementatutako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleak sortzea.

31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa

14. artikuluan ezartzen da langileek eskubidea dutela lan ingurune seguru bat izateko, eta hori garraio publikoko langileei aplika dakieke. Genero ikuspegia aintzakotzat harturik, 25. artikulua emakumeentzako arriskuekin lotutako faktore espezifikoak kontuan hartzea behartzen du, laneko jazarpena eta sexu-jazarpena barne, eta jardura protokoloei eta prebentzio neurriei buruzko prestakuntza sustatzen du.





2.3. Autonomia erkidegoko eta tokiko araudia

2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa

Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzekoa den foru arau horrek bi printzipio nagusi indartzen ditu politika publikoetan: berdintasun eraginkorra eta tranbertsalitatea. 34. artikuluan, erakunde eskudunei eskatzen zaie genero ikuspegia txertatzeko garraio publikoaren plangintzan eta kudeaketan, baita pertsona guztiek berdintasunez, segurtasunez eta irisgarritasunez erabiltzeko baldintzak sustatzea ere. 50. artikulua, bestalde, ezartzen du beharrezkoa dela mugikortasuneko eta lurralde antolamenduko politiketan genero ikuspegia txertatzea; hala, emakumeek zerbitzu horien diseinuan eta ebaluazioan aktiboki parte har dezaten sustatuko da, eta arreta berezia jarriko zaie eguneroko esperientziari eta kalteberatasun edo arrisku egoerei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen testu bategina (1/2023 Legegintzako Dekretua, ekainaren 27koa)

Araudi horrek berdintasunaren arloko lege-esparru autonomikoa sendotzen eta eguneratzen du, eta betebeharrak argiak ezartzen dizkie botere publikoei berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko, bai eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak prebenitzeko ere. Genero tranbertsalitatearen printzipioa indartzen da politika publiko guztietan, eta ikuspegi interseksionala txertatzen. Garraio publikoari dagokionez, testu bateginak azpimarratzen du beharrezkoa dela segurtasun, irisgarritasun eta berdintasun baldintzak bermatzea, bereziki emakumeen eguneroko mugikortasunari dagokionez. Ezartzen du, orobat, beharrezkoa dela espazio publikoetan sexu jazarpenera eta indarkeria prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko berariazko protokoloak diseinatzea eta ezartzea. Ildo horretan, zenbait neurri aurreikusten ditu, besteak beste, arriskuen ebaluazioa, langileen prestakuntza eta garraio publikoak arduratzen diren erakundeen inplikazio aktiboa.

Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Gipuzkoako Itun Soziala

Akordio horrek ederki islatzen du gizarte eragileek eta toki administrazioek genero indarkeria desagerrarazteko duten konpromisoa. Zenbait ekintza biltzen ditu, hala nola garraio publikoan segurtasun sistemak ezartzea, langileentzako berdintasun prestakuntza eta erabiltzaileentzako ibilbide seguruak sortzea. Haren garapena 4/2005 Legearen arau oinarrietan funtsatzen da, eta bat dator tranbertsalitate eta gizarte partaidetzaren printzipioekin.





3. Irismena

Lurraldebusen eremuan indarkeria sexistak prebenitzeko eta haien aurre egiteko protokoloa bereziki diseinatua da hiriarteko garraio zerbitzu publikoarekin zuzenean edo zeharka inplikaturik dauden emakume guztiak babes- teko. Haren irismenaren barruan sartzen dira:

3.1. Lurraldebusen garraio zerbitzu publikoa erabiltzen duten emakumeak

Protokolo honen helburua da Gipuzkoan hiriarteko garraio publikoa erabiltzen duten emakumeei babesa ematea, eta, ildo horretan, arreta berezia eskaintzen die talde kalteberenei eta, ikuspegi intersektionaletik, testuinguru horretan indarkeria egoeren eraginpean egon daitezkeenei.

3.2. Lurraldebuseko emakume langileak

Kontuan hartzen dira Lurraldebusek eskaintzen duen garraio zerbitzu publikoaren enpresa emakid- adunei atxikitako emakume langile guztiak, hala nola gidariak eta leihatiletako langileak, ikusirik indarkeria sexista jasan dezaketela lanean ari diren bitartean.

3.3. Lurraldebuseko gainerako erabiltzaileak eta langileak

Barnean hartzen da, berebat, gidarien eta erabiltzaileen eginkizuna ere, kontuan izanik lekuko gisa rol aktiboa izan dezaketela hiriarteko garraio publikoan indarkeria sexistako egoerak detektatze- ko eta halako kasuak jakinarazteko. Kolektibo horien inplikazioa erabakigarria da protokoloa era- ginkortasunez aplikatzeko; izan ere, ezarritako kanalekin erreakzionatzeko, laguntzeko eta komu- nikatzeko duten gaitasuna lagungarria da ingurune seguruagoak sortzeko eta indarkeria sexistaren biktimei lehen laguntza emateko. Horregatik, Lurraldebuseko langileen sentsibilizazio eta pres- takuntza espezifikoak aurreikusten da, indarkeria sexistako jokabideen berri izateko eta ezarritako prozeduren arabera jarduteko, oinarri gisa harturik betiere errespetua, zaintza eta babesa.





4. Printzipio gidariak



1. ZERO TOLERANTZIA EDOZEIN INDARKERIA SEXISTAREN AURREAN

Lurraldebusek konpromiso irmoa eta garbia hartzen du: ez du inola ere onartuko generoan oinarritutako edozein indarkeri sexista mota. Jokabide horiek ikusarazten, prebenitzen eta zigortzen dituen kultura instituzionala sustatzen da, eta indarkeriarik gabeko espazio seguruak bermatzen dira pertsona guztientzat.



2. INDARKERIA SEXISTAK ERAGINDAKO EMAKUMEAK ZAINTZA ETA ERREPARATZEA

Emakume guztiek dute eskubidea une oro entzunak, baliozkotuak eta duintasunez tratatuak izateko, eta bermatu egin behar zaie ongizate fisikoa, emozionala eta psikologikoa arreta eta laguntza prozesu osoan.



3. BIRBIKTIMIZATZEA PREBENITZEA

Esku hartze orok birbiktimizazioa saihestu behar du, hau da, biktimak ez ditu berriro bizi behar edozein praktika instituzional edo sozial, alferrikako sufrimendu, esposizio edo zalantzak sortzen dituztenak.



4. HERRITARREN ETA LANGILEEN PARTE HARTZE AKTIBOA ETA SEGURUA, ALIATU GISA

Indarkeria sexista prebenitzeko eta desagerrarazteko, pertsona guztien konpromiso kolektibo eta iraunkorra behar da. Herritarren eta langileen parte hartze aktiboa, kontzientea eta segurua sustatzen da; izan ere, aliatu estrategikotzat hartu behar dira ekitatearen, errespetuaren eta indarkeriarik ezaren kultura eraikitzeko.



5. Helburuak

5.1. Helburu orokorra

5.1.1. Indarkeria sexistarik gabeko garraio publikoa bermatzea

Protokolo honen helburua da Lurraldebusek eskaintzen duen garraio publikoa emakume guztientzako espazio seguru, irisgarri eta errespetuzko bihurtzea. Horrek esan nahi du aurre egin behar zaiela eremu horretako desberdintasun estrukturaleri eta indarkeria sexistari. Ildo horretan, erabakigarria da garraio publikoaren erabileran konfiantza sortzea, segurtasun pertzepzioa eskaintzea eta emakume erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzea, prebentzio, jarduketa eta sentsibilizazio estrategia integralen bidez.



5.2. Helburu espezifikoak

Indarkeria sexistaren adierazpenak ezagutzea eta identifikatzea.

Lurraldebuseko langileak gaitzea.

Jarduteko prozedura argi bat ezartzea.

Jardunbide segurua eta enpatikoa sustatzea.

Prebentzian eta jardueran jarrera proaktiboa sustatzea.

Erabiltzaileei eta langileei eskuragarri dauden baliabideen berri ematea.



6. Diagnostikoaren emaitza nagusiak

Gipuzkoako hiriarteko autobus garraio publikoaren segurtasunari eta erabileraren esperientziari buruz aurrez eginitako diagnostikoak agerian uzten du badela errealitate erabat desberdin bat, neurritz kanpo eragiten diena emakumei eta beste kolektibo kaltebera batzuei. Datuak biltzeko prozesu zorrotz baten bidez —zeinaren barnean inkestak, elkarrizketak eta talde fokalak egin baitziren—, ikuspegi integral bat lortu zen indarkeria sexistak eguneroko eremu horretan dituen adierazpide ugari buruz, betiere ebidentzian oinarrituta.

BELDURRA	JAZARPENA	PRESTAKUNTZA ETA EZAGUTZA
<p>Aurkikuntzarik sendoenetako bat izan da alde handia dagoela segurtasunari buruzko pertzepzioan sexuen arabera. Autobusa erabiltzean gizon batek ere ez zuen sentitu beldurrik, baina emakumeen herenak baino gehiagok —hau da, % 34,29k— adierazi du sentitu duela inoiz beldurra joan-etorrietan. Segurtasun faltaren sentimendu hori areagotu egiten da gauean: emakumeen % 28,35ek eta pertsona ez-bitarren % 25ek adierazi dute kaltebera sentitzen direla gaueko ordutegietan edo argiztapen gutxiko eremuetan bidaiatzean.</p>	<p>Jazarpena da indarkeriarik iraunkorrenetako bat. Elkarrizketatutako emakumeen % 60,6k adierazi zuen izan dela inoiz jazarpen edo eraso motaren baten biktima garraio publikoaren barruan —hala nola begirada lizunak eta komentario sexistak, eta are nahi ez ziren ukituak—. Esperientzia horiek, ukituriko pertsonen ongizate emozionalari kalte egiteaz gainera, sakon aldatzen dituzte mugikortasun erabakiak, eta ibilbideak aldatzera, ordutegi jakin batzuk saihestera edo zerbitzua erabat baztertzea bultzatzen dituzte pertsona horiek.</p>	<p>Gainera, agerian geratu da erabiltzaileen artean prestakuntza eta ezagutza falta ageri dela indarkeria sexistako egoeren aurrean erantzuteari dagokionez. Inkestan parte hartutako pertsonen erdiek baino gehiagok —hots, % 56,81ek— aitortu zuten ez zekitela nola jokatu indarkeria sexistaren kasu baten aurrean, eta horrek erakusten du ez dakitela zer baliabide eta zer jarduera protokolo dituzten eskura.</p>



7. Indarkeria sexistak definitzen

Protokolo honetan zer indarkeria egoera eta mota jasotzen diren behar bezala identifikatu ahal izateko eta, ondorioz, jarduera prozesua abian jarri ahal izateko, beharrezkoa da gai horietako batzuk hobeto definitzea. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak indarkeria matxistari buruzko dokumentuan eta haren oinarri den azterketan proposatutako terminologia erabiliko dugu ¹.

Protokolo honen helburua indarkeria sexistarik gabeko garraio publikoa bermatzea da. Alde horretatik, emakume guztiek —hau da, sexu/genero eskema tradizionalan *emakume* gisa sinbolizatutako gorputz guztiek— jasaten dute indarkeria sexista, ez egiten dutenagatik, baizik eta direnagatik eta ordezkatzeko dutenagatik. Emakumeen kasuan, haien gorputzak ez dio aurre egin behar normaltasunaren eskema tradizionalari indarkeria jasateko.

Jarraian, indarkeria sexista mota ohikoenak jasotzen dituzten zenbait definizio aurkeztuko ditugu:

SEXU JAZARPENA

Sexu jazarpena hartzen da «pertsona baten duintasuna iraintzea asmo edo ondorio duen izaera sexuarekiko portaera berbal nahiz fisiko oro, bereziki testuingurua beldurgarria, iraingarria edo umiliagarria bada» (Berdintasun Lege Organikoa, 7.1 artikulua). Sexu jazarpenak ez du zertan izan beti fisikoa; aitzitik, ager daiteke iruzkin iraingarrien, begirada lizunen, keinu lohien, nahi ez diren sexu eskaeren, sexu zurrumurruen eta abarren bidez ere.

SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA

«Sexuan oinarritutako jazarpena hartzen da pertsona baten sexuaren arabera egindako portaera oro, haren helburua edo ondorioa baldin bada pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, makturazita edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea» (Berdintasun Lege Organikoa, 7.2 artikulua). Sexuan oinarritutako jazarpena ez da beti zuzena; aitzitik, izan daiteke sotila eta identifikatzeko zaila ere, hala nola genero estereotipoak edo mikroerasoak indartzen dituzten komentarioak.

SEXU INDARKERIA

«Sexu indarkeriak barnean hartzen du baimendu gabeko edozein sexu ekintza, hala nola kontaktu fisikoa, iradokizunak, baimenik gabe sexu materiala erakustea edo pertsona baten sexu askatasuna urratzen duen beste edozein eraso» (Zigor Kodearen 178. artikulua eta hurrengoak). Sexu indarkeria ez da beti argi eta garbi agertzen eraso fisikoen bidez (sexu erasoak), baizik eta azal daiteke modu sotilagoetan ere, zeinak zailagoak baitira identifikatzeko. Delitu horren barruan sartzen dira onartu gabeko ukituak eta are bortxaketak, baita biktimaren autonomia eta osotasun sexuala urratzen duen edozein ekintza ere, hala nola hertsapenak, xantaia sexualak, eduki sexuala nahi gabe erakustea edo biktimaren askatasunaren eta osotasunaren aurka egiten diren presio psikologikoak.

¹ <https://www.gipuzkoa.eus/documents/2556071/2587709/Terminologi%CC%81a-%2BIndarkeria%2Bmatxistaren%2Barloko%2Bkontzeptuak.pdf>



7.1. Indarkeria sexisten adierazpenak





8. Jarduteko prozedura

Prozedura honen helburua da esparru integral bat ezartzea, Lurraldebusek eskainitako garraio publikoa erabiltzen duten emakumeenganako **indarkeria sexistak prebenitzeko, identifikatzeko eta halakoei aurre egiteko**. Oinarrri gisa hartzen dira berdintasuna, errespetua eta pertsonen duintasuna urratzen duen edozein jokabiderekiko zero tolerantzia. Hori horrela, jarraibide argiak ezartzen dira erabiltzaileentzat eta langileentzat, eta, hala, bermatzen da eraginkortasunez eta errespetuz jokatuko dutela.

Alde horretatik, erabiltzaile batek ikusten badu goian adierazitako indarkeria egoeraren bat gertatzen ari dela, urrats hauek egin behar ditu:



1. Biktimarengana hurbildu eta/edo indarkeria egoera sexista hori eten.



2. Biktimari galdetu zer behar duen edo nola lagundu geniezaiokeen, haren erabakiak errespetatuz eta zalantzan jarri gabe.



3. Laguntza aukerak eskaini: poliziari eta/edo gidariari deitu eta/edo konfiantzako pertsonaren batekin harremanetan jarri.



4. Biktimari leku seguru batera edo joan behar duen leku batera lagundu, edo harekin itxaron bere konfiantzako norbait iritsi arte.

Indarkeria egoera oso larria bada, 112 zenbakira deitu behar da, zer gertatu den jakinarazi eta goian deskribatutako jarduerarekin jarraitu.



8.1. Gidarien eginkizunak

Autobusean indarkeria egoera sexista bat jakinarazten denean, gidariek biktimaren segurtasuna eta ongizatea lortzen lagunduko dute, eta gidaritza eta gainerako erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jartzen ez duten neurriak hartuko dira:



ESPAZIO SEGURUAGOA ESKAINTZEA

Erasoa jasan duen pertsona martxan dagoen ibilgailuaren barruan baldin badago eta segurtasun baldintzek ahalbidetzen badute, aukeran izango da gidatzeko kabinatik edo aurreko eserlekuetatik gertu kokatzeko aukera eskaintzea, biktima babestuago eta eroso senti dadin.



SEGURTASUN KAMERAK AKTIBATZEA ETA KONTROL ETA AKTIBAZIO ZENTROAREKIN HARREMANETAN JARTZEA

Gidariek larrialdi botoia aktibatu beharko dute, eta horrek berehalako komunikazioa ezarriko du Kontrol Zentroarekin, gertatutako egoeraren berri izan dezaten.



AUTOBUSA APARKATZEA ETA 112 ZENBAKIRA DEITZEA

Indarkeria sexistaren larritasunak hala eskatzen duenean, ibilgailua erabiltzaileentzat arriskurik ez dakarren tokirik hurbilenean geldituko da, eta une oro bermatuko da eraso jasan duen pertsonaren segurtasuna. Kontrol Zentroak 112 zerbitzuari jakinaraziko dio larrialdi egoera, baita autobusa non dagoen ere.



9. Autobusen ekipamendua

Lurraldebuseko ia autobus guztiek dituzte elementu hauek:

SEGURTASUN KAMERAK



Lurraldebuseko ibilgailu gehienek dituzte zaintza kamerak, eta, indarkeria sexistaren bat gertatzen denean, ebidentzia gisa erabil daitezke.

LARRIALDI BOTOIAK



Ia autobus guztiek dute larrialdietarako botoi bat gidariaren gune babestuan. Horiek aktibatzeak berehala sortzen du alerta Kontrol Zentroan.

EREMU BABESTUAK



Gidariarengandik gertu dagoen eremua biktimak babesteko eremutzat hartu behar da. Biktimak hala erabakitzen edo adierazten badu, gidariak aukera eman behar dio eraso jasari duenari bertan egoteko, harik eta egoera konpontzen den arte.



10. Prebentzioa eta sentsibilizazioa

Prebentzioa eta sentsibilizazioa funtsezko zutabeak dira garraio publikoan ingurune segurua, inklusiboa eta errespetuzkoa bermatzeko. Prestakuntza zorrotz baten eta sentsibilizazio kanpainen bidez, Lurraldebusek indartu egingen du bere zerbitzuetan berdintasunarekin eta indarkeria sexista desagerraraztearekin duen konpromisoa.

10.1. Langileentzako trebakuntza

Lurraldebuseko langileek funtsezko eginkizuna dute indarkeria egoera sexistak prebenitzeko eta kudeatzeko, eta garraio publikoan erantzuteko lehen lerro gisa jokatzeko. Horretarako, funtsezkoa da **prestatuntza espezifiko** jasotzea, barnean harturik betiere indarkeria sexistari buruzko ezagutza teorikoa eta egoera kritikoetan esku hartzeko esperientzia praktikoak.

Prestakuntzaren ardatzak zera izan behar du, **indarkeria sexistaren adierazleak** identifikatzea. Horrek barnean hartzen ditu ageriko jokabideak, hala nola larderiazko komentarioak edo nahi ez den kontaktu fisikoa, baina barnean hartu behar ditu seinale sotilagoak ere, biktimen gorputz hizkuntza edo ihes portaerak, kasurako. Langileek enpatiaz jokatzeko prestatuta egon behar dute, eta babesa eta baliozkotzea erakutsi behar dizkiote biktimari.

Prestakuntza horren ezinbesteko parte praktiko bat **esku hartzeko simulazioak** dira. Ariketa horien bidez, langileek ingurune kontrolatu batean praktika dezakete nola erantzun indarkeria egoera sexistak gertatzen direnean, eta, hala, areagotu egiten dituzte konfiantza eta eraginkortasuna. Simulazioek egoera errealistak izan behar dituzte, hala nola hitzez eginiko erasoak, jarraipen iraunkorrak edo baimendu gabeko kontaktu fisikoa, pertsonak jarduteko protokoloekin ohitu daitezzen eta egoera horiei lotutako estresa maneiatzen ikas dezaten. Genero berdintasuneko eta biktimei arreta emateko espezialisten feedbacka funtsezkoa da trebetasun horiek hobetzeko eta erantzunak errespetuaren eta konfidentzialtasunaren printzipioekin bat datozela bermatzeko.



**Teoria, adierazleen
identifikazioa,
jarduketa-simulakroak**

**Jarduteko
barne-protokoloa**

Proba pilotua



10.2. Sentsibilizazio kanpainak

Sentsibilizazio kanpainak funtsezko zutabea dira indarkeria sexistarik gabeko garraio sistema publiko bat eraikitzekeko estrategian. Eskubideak sustatzearen eta prebentzioaren ikuspegitik, ekintza horiek ez dira sortu herritarrei baliabide erabilgarrien berri emateko bakarrik, baita errespetuaren, berdintasunaren eta bizikidetzaren seguruaren aldeko kultura aldaketa iraunkor bat sendotzeko ere.

Ezarritako ildo estrategikoetako bat autobus eta geltokietan kartelak jartzea izan da: horrek etengabeko oroigarri bisual gisa jarduten du, agerian uzteko **Lurraldebusek indarkeria sexistaren aurrean zero tolerantziarekin duen konpromisoa**. Mezu horiek hizkuntza argi, zuzen eta inklusiboan idatzita daude, Lurraldebuseko erabiltzaile guztiei zuzenduak dira, eta guztien arteko errespetuaren balioak indartzea eta bizikidetzaren seguruarekin lerrokatutako portaerak sustatzea dute helburu. Gainera, informazio praktikoa eta eskuragarria ematen dute, indarkeria sexistako egoera bat ikusi edo horren biktima izanez gero nola jokatu jakiteko.

Era berean, kanpainak agerian uzten dute emakume guztiek eskubidea dutela ingurune seguru batean ibiltzeko, jazarpenik edo erasorik gabe. Horretarako, informazio materialak prestatu dira, erraz-erraz azaltzen dituztenak salaketa prozedurak eta eskura dauden laguntza baliabideak, babes mekanismo instituzionalen irisgarritasun handiagoa sustatzeko.

Haien irismena eta eraginkortasuna areagotzeko, kanpainak kanal anitzeko ikuspegia hartu dute, eta euskarri tradizionalak (espazio publikoko kartelak, adibidez) tresna digitalekin konbinatzen dira, barnean harturik sare sozialak. Estrategia horrek aukera ematen du mezuak askotariko biztanleen eskura jartzeko, baita garraioan material fisikoekin interakzioan jardun ohi ez dutenei ere.



Kartelak busetan eta geralekuetan

Sare sozialak

Zero tolerantziari eta eskura dauden baliabideei buruzko mezu argiak



11. Indarkeria sexistaren biktimentzako baliabideak

Emakume batek hiriarteko garraio publikoaren eremuan indarkeria sexista jasaten duenean, funtsezkoa da biktima horrek berehalako arreta egokia jasotzea, ez bakarrik bere segurtasuna bermatzeko, baita indarkeria sexistaren ondorengo prozesuan laguntza emozionala eta orientazioa emateko ere.

LARRIALDIETARAKO BALIABIDEAK / BEREHALAKO ARRETAN

Larrialdi-telefonoak:

- 112
- 016

Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua

Osakidetza

Biktima guztiak Osakidetzaren osasun etxeetara eta ospitaleetara joan ahal izango dira, beharrezko osasun arreta eta laguntza jasotzeko.

GFA – Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Foru Zerbitzua
Zerbitzu horrek berehalako arreta eskaintzen du gizarte larrialdiko egoeretan, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

Telefonoa: 943 22 44 11

Helbide elektronikoa: sfus@gipuzkoa.eus

Hariberria zentroak

Zentro horiek arreta integrala eta espezializatua eskaintzen diete —eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan— sexu indarkeria jasan duten 16 urteik gorako emakumeei, haien senideei eta ingurune hurbilari. Zerbitzuok laguntza psikologikoa, soziala eta juridikoa ematen dute, ingurune seguru eta konfidentzial batean.

Telefonoa: 900 840 188

OHAR garrantzitsuak:

- Hariberrian eta udaleko gizarte zerbitzuetan sartzek zuzenean bideratzen du arreta psikologikora edo soziojuridikora.

Eusko Jaurlaritza

SATEVI – Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta Zerbitzua
Doako telefono konfidentziala, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan eskuragarri. Zerbitzu horrek ez du arrastorik uzten telefono fakturan, eta egokituta dago entzumen edo hizketa desgaitasuna duten pertsonentzat.
Telefonoa: 900 840 111

Larrialdi-zentroak eta harrera-etxeak

Berehalako arrisku-egoeran dauden emakumeentzako aldi baterako bizitoki segurua.

LARRIALDIKOAK EZ DIREN BALIABIDEAK

(Sarbide programatua, deribazioa edo alde zuzeneko balorazioa)

GFA – Gipuzkoako Foru Aldundia

Banakako eta taldeko arreta psikologikoa
Udaleko gizarte zerbitzuek baloratu behar dute alde zuzenetik.

Garaitu zerbitzua

Arreta anbulatorio espezializatua; ez da berehalakoa, ezta 24 ordukoa ere.

Arreta soziojuridikoa

Udaleko Gizarte Zerbitzuek bideratzen dute zerbitzu horretara.

Eusko Jaurlaritza

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)

Prozesu judizialean laguntzen du, ez da premiazko arretarako.

ZUREKIN programa

Laguntza judizial integrala, baina ez larrialdi egoeretan

Doako laguntza juridikoa

Kudeaketa eskatzen du prozesu judizialearako.

Arreta psikologiko espezializatua

Programatutako laguntza emozionala; ez da berehalako erantzun baliabide bat.

LURRALDEBUS

